MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Goi Eskola Politeknikoa**

Albisteak

# Ate irekien jardunaldia larunbatean Ingeniaritzako Fakultatean, Arrasaten

2017/02/09

MONDRAGON UNIBERTSITATEAk larunbat honetan, Otsailaren 11n, 10:30ean, ate irekien jardunaldia egingo du bere Arrasateko campuseko Areto Nagusian (Loramendi kalea, 4an), Goi Eskola Politeknikoan eskaintzen dituen ingeniaritzako graduen berri emateko, eta, zehazki, campus horretan eskaintzen dituen graduen berri emateko.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAk ingeniaritzako bederatzi gradu ematen ditu Goi Eskola Politeknikoaren bitartez, Arrasaten, Ordizian eta Donostialdean dituen campusetan.

Ate irekien jardunaldia ingeniaritza ikasketetan interesa duten gazteei eta berauen familiartekoei zuzenduta dago. Jardunaldian parte hartzeko izena eman daiteke MONDRAGON UNIBERTSITATEAren webgunean edo telefono honetara deituz: 902 110 436.



Ingeniaritza Graduko ikasleak proiektu batean lanean